KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2025eko apirila

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak

2. Inflazioa

3. Familien konfiantza

4. Enpresen konfiantza

5. PMI konposatua

6. ELGAren aurreikuspenak

Eranskina

1.EAEko ekonomia %2,1 haziko da 2025ean.

Ekonomia Zuzendaritzak zertxobait gorantz berrikusi ditu bere aurreikuspenak.

2. Inflazioa %3,3ra apaldu zen otsailean.

Azpiko inflazioa %2,4an kokatu zen, helburutik gero eta hurbilago.

3. EAEko familiek neutraltasunetik gertu mantentzen dute konfiantza.

Konfiantza indizea azken urteetako maila positiboenetako batean dago.

4. Enpresen baikortasuna azken hiru urteetako maximoetan dago.

Inkestaren atal ia guztiek hobekuntza erakusten dute aurreko datuarekin alderatuta.

5. Euroaren eremuko PMI konposatua pixka bat igo zen martxoan.

Alemaniako manufakturetan susperraldi nabarmena hauteman da.

6. ELGAk uste du merkataritzako murrizketek hazkunde globala gutxituko dutela.

Herrialde kaltetuenak Mexiko eta Kanada izango dira.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EAEko ekonomia %2,1 haziko da 2025ean

BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa

2025EKO HAZKUNDEA

%2,1



Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Zuzendaritzak 2025-2026 aldirako aurreikuspen makroekonomikoak eguneratu ditu, eta hazkunde igurikimenetan hobekuntza txiki bat islatu du. Kalkuluen arabera, BPGa %2,1 haziko da 2025ean eta %1,8, berriz, 2026an, eta horrek esan nahi du bi urteetan hamarren bat igo dela oraingo aurreikuspena aurreko zenbatespenekin alderatuta.

Hazkundeak barne eskariak bultzatuta jarraituko du, 2025ean %2,3ko hazkunde tasa izatea aurreikusten baita, kontsumo pribatuaren bilakaera positiboak lagunduta, nahiz eta inflazioa oraindik ez den ezarri zen helbururaino jaitsi. Datuak kalkulatzeko orduan duela gutxi egin den berrikuspenak erakusten du familien gastua hasieran aurreikusitakoa baino dinamikoagoa izan dela, eta horrek joera hori sendotzen laguntzen du. Hala eta guztiz ere, kanpoko eskariak ziurgabetasuna erakusten jarraitzen du, eta hazkundeari egiten dion ekarpena negatiboa izango da aurreikuspenaren bi urteetan, industriaren ahuleziak eta merkataritza oztopo berriak ezartzeko aukerak bultzatuta.

GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa



KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuen balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektoreka, industria %1,1 haziko da 2025ean, kanpo eskariaren ahuleziak eraginda, baina 2026an suspertuko da. Eraikuntzak %2,7 egingo du gora 2025ean, etxebizitzen eskaerak eta finantza inguruneak lagunduta, eta 2026an, berriz, erritmoa %2,2ra apalduko da. Zerbitzuek gidatuko dute hazkundea 2025ean, %2,3ko hazkunde tasa batekin, eta datorren urtean %1,7ra motelduko dira.

Enpleguak hazten jarraituko du, erritmo motelagoan bada ere, demografia eta migrazioen fluxuak funtsezko faktore direla. 2025ean, lanpostuen kopurua %1,5 handituko da, hau da, 15.000 enplegu garbi sortuko dira, eta 2026an, berriz, erritmoa %1,2ra motelduko da. Langabezia tasa %7tik beherakoa izango da eta egonkor mantenduko da.

Enplegua

Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia tasa

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

INFLAZIOA

Inflazioa %3,3ra apaldu zen otsailean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Otsaileko KPIak %3,3ko balioa hartu zuen, aurtengo urtarrilekoa baino bi hamarren txikiagoa. Hori horrela izanda, badirudi urtarrilean hasitako beheranzko joera txiki bat sendotzen ari dela. Moteltze horretan eragina izan zuen otsailean erregaien prezioa pixka bat jaisteak eta elektrizitatearen prezioak egonkortzeak. Bestalde, azpiko inflazioa %2,4ra jaitsi zen.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2025eko otsaila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,6	3,1	3,3	3,3
Azpiko inflazioa (%84,8)	6,2	3,2	2,4	2,0
- Elikagai landuak (%14,8)	12,5	4,6	2,2	0,3
- Industria ondasunak (%20,2)	4,7	1,2	1,2	0,2
- Zerbitzuak (%49,8)	4,3	3,5	3,0	1,5
Hondar inflazioa (%15,2)	-6,4	2,6	8,1	1,3
- Landu gabeko janariak (%6,4)	7,3	4,0	5,5	0,4
- Energia (%8,8)	-17,0	1,0	10,0	0,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Elikagaien prezioa

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuen prezioa

Urte arteko aldakuntza tasa



Otsailean, elikagaiek beren prezioen igoera moteltzen jarraitu zuten, urte arteko %3,2 igo baitziren, urtarrileko urte arteko %3,3ko datuekin alderatuta. Egonkortzeko joera hori urrun dago 2024aren hasieran jaso ziren igoera nabarmenetatik. Etxebizitza da oraindik ere talderik inflazionistena, eta urte arteko %11,1eko igoera izan zuen otsailean. Elektrizitatearen prezioaren BEZaren igoerak eragin nabarmena izan du horretan. Era berean, jatetxe eta hotelen eta beste ondasun eta zerbitzu batzuen atalak %4,0ko urte arteko igoerekin jarraitzen dute, eta gainontzeko atal gehienak %2aren inguruko balioetan daude kokatuta. Gutxien igotzen diren taldeen artean, altzariak eta etxeko gaiak (%1,0) eta aisialdia eta kultura (%1,5) daude. Azkenik, garraioa %0,7 merkatu da 2024ko otsailarekin alderatuta.

KPI talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasa. 2025eko otsaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**3,3**	**3,0**	**2,3**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,2	2,2	2,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	3,0	3,0	4,6
Jantziak eta oinetakoak	2,3	0,1	0,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	11,1	9,8	2,7
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	1,0	0,5	0,1
Osasuna	2,1	1,9	3,4
Garraioa	-0,7	0,3	1,0
Komunikazioak	2,0	2,0	-3,2
Aisia eta kultura	1,5	1,4	2,3
Hezkuntza	2,4	2,5	4,0
Jatetxeak eta hotelak	4,0	4,1	4,0
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	4,0	3,6	4,2

Iturria: INE eta Eurostat.

FAMILIEN KONFIANTZA

EAEko familiek neutraltasunetik gertu mantentzen dute konfiantza

EAEko familien konfiantza indizea

2025eko 1. hiruhilekoa

-4



Laboral Kutxak egiten duen adierazlearen arabera, 2025eko lehen hiruhilekoan EAEko familien konfiantzak beherakada txiki bat izan zuen, 2024ko amaieran erregistratutako balioekin alderatuta. Hain zuzen ere, indizea -4 izan zen, aurreko erregistrotik bi puntu beherago, nahiz eta 2024ko batez bestekoaren ildotik eta neutraltasunetik gertu mantendu zen. Ingurune ekonomikoaren ezegonkortasunak eta inflazioaren balizko gorakadak presioa eragin zuten indizean, eta beherantz eraman zuten.

Hala eta guztiz ere, Europako herrialde nagusiekin alderatuz gero, agerian geratzen da EAEko familien unitateen baikortasuna beste lurralde batzuetakoa baino nabarmen handiagoa dela, eta, oro har, igurikimenek ere okerrera egin dutela. Besteak beste, Europar Batasuneko lehen hiru hilabeteetako batez bestekoa -13koa izan zen, aurreko balioa baino puntu bat txikiagoa. EAEko familien baikortasun handiagoa konstante bat izan da 2021eko bigarren hiruhilekotik.

Familien konfiantza indizea

	2023	2024	2024				2025
			I	II	III	IV	I
Euskadi	**-9**	**-4**	**-5**	**-3**	**-4**	**-2**	**-4**
Europar Batasuna	**-19**	**-13**	**-14**	**-13**	**-12**	**-12**	**-13**
Frantzia	-17	-14	-13	-15	-13	-15	-13
Alemania	-15	-11	-15	-10	-10	-10	-12
Herbehereak	-19	-12	-12	-12	-10	-12	-16

Ekonomia orokorra



Familiaren ekonomia



Atalka eginiko analisiak adierazten du ezkortasuna ekonomia orokorrari buruzko iritzietan kontzentratu zela bereziki (-19), eta, neurri txikiagoan, etxeko ekonomian (-6), nahiz eta azken horrek profil nahiko egonkorra erakutsi zuen 2024aren hasieratik. Aitzitik, aurrezteko ahalmenari buruzko igurikimenek eremu positiboan jarraitu zuten, aurreko hiruhilekoekin alderatuta behera egin bazuten ere.

Azkenik, EAEko familiak baikor hasi ziren 2025. urtean, langabeziaren bilakaerari dagokionez, lan merkatuaren adierazleek iradokitzen dutenarekin bat etorriz. Afiliazioa milioi bat kotizatzailetik gorakoa den testuinguru batean, familien heren batek datozen hamabi hilabeteetan langabezia murriztea espero du, eta %49k, berriz, gaur egun dagoenaren antzeko mailetan jarraituko duela uste du.

Langabeziaren bilakaera



Aurrezteko gaitasuna



Iturria: Laboral Kutxa.

Enpresen baikortasuna azken hiru urteetako maximoetan dago

ENPRESEN KONFIANTZAREN INDIZEA. EUSKADI

2025KO 2. HIRUHILEKOA

58,0



Laboral Kutxak argitaratutako inkestaren arabera, EAEko enpresak baikorragoak dira aurtengo bigarren hiruhilekoari begira. Indizea lehen hiruhilekoko 53,6tik gaur egungo 58,0ra igo da, 2022aren hasieratik ikusten ez zen balioa baita, eremu hedakorrean duen posizioa sendotuz. EAEko enpresen datu hori Eurogunekoa (50,2 urtarrilean) eta Estatu osokoa (54,0 urrian) baino altuagoa da.

Oro har, hobekuntza hautematen da ia atal guztietan. Prezioei buruzko igurikimenetan, inkestatutako 404 enpresen %30,7k soilik aurreikusten du igoera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta beherakada izan den arren, indizea 62,7koa da, eta posizio hedakor erosoan mantentzen da. Halaber, fakturazioarekin lotutako erantzunak nabarmen hobetu dira, 60,9 izatera iritsi baitira.

FAKTURAZIO IGURIKIMENAK

Indizea



JARDUERA IGURIKIMENAK

Indizea



Eskarien igurikimenak

Indizea



Prezioen igurikimenak

Indizea



Errentagarritasun igurikimenak

Indizea



Konfiantza indizea osatzen duten gainerako atalek ere antzeko bilakaera izan zuten, eta guztiak eremu hedakorrean kokatu ziren, hau da, 50eko balioaren gainetik. Errentagarritasunaren bilakaerari buruzko igurikimenen hazkundea nabarmendu zen bereziki, sei urtean lehen aldiz gainditu baitzuen uzkurdura eremua.

Gainerako atalei dagokienez (jarduera, eskaerak, langileak eta inbertsioa), igurikimenak hobetu egin ziren guztietan, aurtengo lehen hiru hilabeteekin alderatuta. Horrek baieztatzen du EAEko enpresak une ekonomiko onean daudela eta datozen hilabeteei begira ikuspegi positiboa dutela.

Langile igurikimenak

Indizea



Inbertsio igurikimenak

Indizea



Iturria: Laboral Kutxa.

Euroaren eremuko PMI konposatua pixka bat igo zen martxoan

Martxoan, euroaren eremuko PMI konposatua 50,4an kokatu zen, hots, otsaileko datua baino bi hamarren gorago. Halaber, azken zazpi hilabeteetako daturik onena da, nahiz eta 50. maila gutxigatik gainditzen duenez, interpretazioa den ekonomiaren hazkundea oraindik marjinala dela. Argitaratutako informazioak adierazten du eskaera berrien sarrera lehen hiruhilekoaren amaieran murriztu zela. Bestalde, enplegua aldaketarik gabe mantendu zen, hainbat hilabetetako murrizketen ondoren, eta prezioak, bai intsumoenak bai salmentarenak, moteldu egin ziren.

Manufakturen jarduera ia bi puntu hobetu zen, eta hedapen eremura iritsi zen, 50,7ko balioarekin, hau da, handiena ia hiru urtean. Aitzitik, zerbitzuak pixka bat hoztu ziren eta 50,4an geratu ziren, azken lau hilabeteetako minimoan.

PMI konposatua. Eurogunea

2025eko martxoa

50,4



Manufakturen PMI. Eurogunea



Zerbitzuen PMI. Eurogunea



PMI konposatua. Alemania



PMI konposatua. Frantzia



Herrialdeka eginiko azterketak iradokitzen du Alemaniak suspertzeko prozesu bat hasi duela eta bere PMI konposatua 50,9an dagoela orain, azken hamar hilabeteetako daturik positiboena. Zerbitzuen jarduera moteldu egin da (50,2), baina manufakturak indarrarekin berraktibatu dira, 52,1 punturaino, hiru urteko maximoa.

Frantziaren kasuan ere hobekuntza nabaritzen da otsaileko beherakadaren ondoren. Adierazlea 47,0an dago orain, oraindik uzkurdura eremuan. Bai zerbitzuek eta bai manufakturek urrats bat egin dute norabide onean, baina hedapen eremuan sartzetik urrun daude. Zerbitzuen indizea 46,6 da eta manufakturena, berriz, 48,8.

PMI konposatua. Erresuma Batua



PMI konposatua. AEB



PMI konposatua. Japonia



Iturria: Markit

ELGAk uste du merkataritzako murrizketek hazkunde globala gutxituko dutela

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



AEBek eragindako tentsio komertzial gero eta handiagoek munduko ekonomiaren hazkundea bi hamarren murriztuko dute aurten eta hiru hamarren datorren urtean; inflazioa, berriz, lau hamarren handituko da bi urteetan. ELGAren arabera, Mexiko eta Kanada izango dira tentsio horien eragin handiena jasango duten herrialdeak, hazkundearen moteltze nabarmenarekin. Kanadako ekonomiaren kasuan, eragina 1,3 puntukoa izango da datozen bi urteetako bakoitzean, eta Mexikoko ekonomian, berriz, are handiagoa: -2,5 puntu 2025ean eta -2,2 puntu 2026an.

ELGAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2024	2025	2026	2025	2026
Munduko ekonomia	**3,2**	**3,1**	**3,0**	**-0,2**	**-0,3**
AEB	2,8	2,2	1,6	-0,2	-0,5
Eurogunea	0,7	1,0	1,2	-0,3	-0,3
Alemania	-0,2	0,4	1,1	-0,3	-0,1
Frantzia	1,1	0,8	1,0	-0,1	0,0
Italia	0,7	0,7	0,9	-0,2	-0,3
Espainia	3,2	2,6	2,1	0,3	0,1
Erresuma Batua	0,9	1,4	1,2	-0,3	-0,1
Kanada	1,5	0,7	0,7	-1,3	-1,3
Japonia	0,1	1,1	0,2	-0,4	-0,4
Txina	5,0	4,8	4,4	0,1	0,0
India	6,3	6,4	6,6	-0,5	-0,2
Brasil	3,4	2,1	1,4	-0,2	-0,5

AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



ELGAren kalkuluen arabera, munduko ondasun eta zerbitzuen merkataritzaren % 8,2k oztopo komertzial berriak pairatu ditzake. Manufakturen sektorea izango da kaltetuena, batez ere automobilgintza, makineria eta ekipamendua, bai eta gailu elektronikoak ere.

Aldebiko muga zergen zuzeneko eraginaz gain, aldaketa geopolitikoei lotutako ziurgabetasunak eta merkatu globalaren zatiketak nazioarteko merkataritzaren kostuak igotzen jarraituko dute. Horren ondorioz, eta herrialde askotan lan merkatuak tentsionatuta daudenez, banku zentral batzuek diru politika zorroztu dezakete.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA.

Taula makroekonomikoa. Eustat

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023	2024			
			IV	I	II	III	IV
BPG	**2,7**	**2,2**	**2,3**	**2,4**	**2,1**	**2,0**	**2,1**
Barneko azken kontsumoa	1,7	2,4	1,8	2,2	2,3	2,4	2,5
Familien kontsumoa	1,9	2,4	1,8	2,1	2,3	2,4	2,5
Administrazioaren kontsumoa	1,3	2,3	1,5	2,4	2,3	2,3	2,3
Kapital eraketa gordina	1,8	2,1	2,0	2,3	1,7	2,0	2,3
Barne eskaria	1,8	2,3	1,8	2,2	2,2	2,3	2,4
Esportazioak	1,0	0,1	-1,6	-3,4	2,1	2,0	-0,3
Inportazioak	-0,2	0,3	-2,1	-3,5	2,2	2,4	0,2
Lehen arloa	16,0	3,1	10,3	6,5	2,8	1,0	2,2
Industria eta energia	1,8	1,0	2,0	1,7	1,0	0,8	0,5
Eraikuntza	2,6	1,6	1,8	2,2	1,0	0,9	2,2
Zerbitzuak	3,0	2,6	2,3	2,6	2,5	2,5	2,7
Balio erantsi gordina	2,8	2,1	2,3	2,4	2,1	2,0	2,1
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,7	2,3	2,2	2,3	2,3	2,2	2,2
Enplegua	1,8	1,8	1,9	2,0	1,9	1,6	1,6

Oharra: Hiruhilekoko desagregazioa eguneratu gabe dago Eustaten aldetik.
2023ko aurrerapena eta 2024ko behin-behineko datuak.

Euskal ekonomiaren termometroa. Ekonomia Zuzendaritza

Otsaila

2024										2025	
Mart.	Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.
84,5	**91,4**	**97,4**	**99,3**	**96,4**	**95,9**	**98,8**	**95,1**	**97,9**	**96,3**	**99,4**	**95,8**

X<50 Atzeraldia | **50<X<100** Hazkunde leuna | **X>100** Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroak 95,8ko balioa izan zuen otsailean. Zerbitzuen sektorearen jardueraren hazkundea da oraindik ere EAEko ekonomiaren bultzada nagusia, nahiz eta sektorean enplegua sortzeko erritmoaren nolabaiteko moteltzea hautematen den, jarduera desberdinetara hazkunde orekatuagoa ekarriz. Oraingo datuen arabera, beste hilabete batez industriaren ahulezia nabarmendu da, eta sektorearen joerari buruzko ziurgabetasuna handiagoa da, eraikuntzan ez bezala, horrek sendotu egiten baitu sektorearen bultzada. Kontsumoak bilakaera positiboa du, nahiz eta inflazioaren gorakadak hazkunde handiagoa eragozten duen.

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025				2025	2026
	I	II	III	IV		
BPG	**1,9**	**2,1**	**2,1**	**2,0**	**2,1**	**1,8**
Barneko azken kontsumoa	2,3	2,3	2,2	2,0	**2,2**	**1,7**
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,3	2,0	**2,3**	**1,7**
Administrazioaren kontsumoa	1,9	2,1	2,0	1,9	**2,0**	**1,7**
Kapital eraketa gordina	2,2	2,5	2,8	2,8	**2,6**	**2,5**
Barne eskariaren ekarpena	2,3	2,4	2,3	2,1	**2,3**	**1,9**
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,3	-0,3	-0,2	-0,1	**-0,2**	**-0,1**
Lehen arloa	2,4	1,0	0,5	-1,0	**0,8**	**-0,1**
Industria	0,6	1,2	1,0	1,7	**1,1**	**1,6**
Eraikuntza	2,4	3,1	3,1	2,4	**2,7**	**2,2**
Zerbitzuak	2,3	2,3	2,5	2,2	**2,3**	**1,7**
Balio erantsi gordina	1,9	2,1	2,2	2,0	**2,1**	**1,7**
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,9	1,9	1,7	2,2	**1,9**	**2,3**
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,5	1,5	1,4	**1,5**	**1,2**
Landunak (BJA)	1,5	1,5	1,4	1,3	**1,4**	**1,0**
Langabezia tasa	7,3	6,8	6,8	6,9	**7,0**	**6,7**

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
BBVA	2,5	1,9	Euskal Ganberak	2,2	—
CaixaBank	2,4	—	**Eusko Jaurlaritza**	**2,1**	**1,8**
Ceprede	2,3	2,5	Laboral kutxa	1,8	—
Hispalink	2,2	2,0	Confebask	1,8	—

ESTATISTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023	2024			
			IV	I	II	III	IV
BPG	**2,7**	**3,2**	**2,3**	**2,6**	**3,2**	**3,3**	**3,4**
Kontsumo pribatua	1,7	2,8	3,0	2,1	2,5	2,9	3,8
Kontsumo publikoa	5,2	4,1	5,0	4,9	3,4	4,2	4,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,1	3,0	4,7	2,3	3,0	2,2	4,5
- Aktibo finko materialak	2,4	3,3	4,8	1,9	3,4	2,8	5,1
- Eraikuntzan	3,0	3,5	3,9	2,4	3,5	3,9	4,1
- Ekipamendu ondasunetan	1,1	2,8	6,3	0,9	3,2	0,8	6,8
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,0	1,5	4,1	4,0	1,0	-0,4	1,7
Nazio eskaria (ekarpena)	1,7	2,8	2,7	2,3	2,5	2,8	3,6
Esportazioak	2,8	3,1	0,7	1,8	2,7	4,7	3,2
Inportazioak	-0,2	0,3	2,3	1,0	1,1	3,7	4,0

BPGaren aurreikuspenak. Beste erakunde batzuk

Urte arteko aldakuntza tasa

	2025	2026		2025	2026
AFI	2,8	2,3	Universidad Loyola Andalucía	2,5	2,2
BBVA Research	2,8	1,8	Cámara de Comercio España	2,4	1,9
Equipo Económico (Ee)	2,8	2,2	Funcas	2,4	1,8
CEEM-URJC	2,6	1,9	Instituto Estudios EconómicoS	2,4	1,8
ICAE-UCM	2,6	2,0	Mapfre Economics	2,4	1,7
Oxford Economics	2,6	1,7	Intermoney	2,3	1,9
CaixaBank Research	2,5	2,1	**Consenso (media)**	**2,5**	**1,9**
CEPREDE-UAM	2,5	2,1	Espainiako Bankua (2025-03)	2,7	1,9
CEOE	2,5	2,0	Gobernua (2025-02)	2,6	2,2
EthiFinance Ratings	2,5	2,2	ELGA (2025-03)	2,6	2,1
Metyis	2,5	1,9	AIReF (2025-01)	2,5	--
Repsol	2,5	2,0	EB (2024-11)	2,3	2,1
Santander	2,5	1,7	NDF (2025-01)	2,3	1,8

Iturria: Funcas.

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024	2023	2024			
			IV	I	II	III	IV
AEB	2,9	2,8	3,2	2,9	3,0	2,7	2,5
Txina	5,2	5,0	5,3	5,3	4,7	4,6	5,4
Japonia	1,5	0,1	0,9	-0,8	-0,7	0,7	1,2
Kanada	1,5	1,3	1,2	0,7	1,2	1,9	2,4
Europar Batasuna	0,5	0,8	0,4	0,6	0,8	1,0	1,2
Eurogunea	0,4	0,7	0,2	0,5	0,5	1,0	1,2
Alemania	-0,3	-0,2	-0,2	-0,1	-0,2	-0,3	-0,2
Frantzia	0,9	1,1	1,3	1,4	1,0	1,2	0,6
Erresuma Batua	0,4	0,5	-0,3	0,5	0,9	1,0	1,4
Italia	0,7	0,5	0,5	0,3	0,6	0,6	0,6
Herbehereak	0,1	0,9	-0,6	-0,7	0,6	1,8	2,0

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO MARTXOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2025	2026	2025	2026	2025	2026
AEB	2,0	2,0	2,9	2,6	4,2	4,3
Japonia	1,2	0,9	2,8	1,8	2,4	2,4
Kanada	1,3	1,2	2,3	2,0	6,9	6,7
Europar Batasuna	1,2	1,5	2,2	2,0	—	—
Eurogunea	0,9	1,2	2,2	1,9	6,4	6,5
Alemania	0,2	1,2	2,2	2,0	6,2	6,1
Frantzia	0,7	1,0	1,4	1,6	7,7	7,7
Erresuma Batua	0,9	1,2	3,1	2,4	4,6	4,8
Italia	0,6	0,9	1,8	1,7	6,3	6,3
Espainia	2,5	1,9	2,4	2,0	10,8	10,5
Herbehereak	1,6	1,2	3,1	2,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.